




Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



ZTF-FCT  
Zientzia eta Teknologia Fakultatea  
Facultad de Ciencia y Tecnología



# ZTF-FCTko INGENIARITZA KIMIKOKO GRADUKO CURRICULUMEN KANPO PRAKTIKEI BURUZKO ARAUDIA

Fakultate Batzarrak onartua 2016ko martxoak 16

## **1. artikulua. Xedea eta definizioak.**

1.1. Honako araudi honen xedea, hain zuzen, Zientzia eta Teknologia Fakultateko (aurrerantzean, ZTF-FCT) Ingeniaritza Kimikoko Graduako ikasleen curriculumeko kanpo praktikak arautzea da.

Graduko ikasketen curriculumeko kanpo praktika akademikoak, hain justu, unibertsitateko ikastegietan edo unibertsitateari hitzarmen edo itunen bitartez lotutako zentroetan egiten dira, ikasleak jarduera profesionalaren errealitatearekin harremanetan jar daitezten. Derrigorrezko ikasgaiekin lotzen direnez, derrigorrean bete behar dira dagozkion titulua lortu ahal izateko eta, beraz, unibertsitateak bermatu behar du ikasle guztiek egin ahal izatea.

Praktika hauek ikasketa planaren barruan sartzen dira eta Graduoko eta Lehen eta Bigarren Zikloetako Irakaskuntzen Kudeaketarako Araudiak xedaturikoaren arabera arautuko dira; betiere, honako araudi honetan aurreikusitakoari kalterik eragin gabe.

1.2. Araudi honen ondorioei begira, honako hauek ulertuko ditugu:

a) **Tutorea**, hain justu, erakunde laguntzaile batean curriculumeko kanpo praktika akademikoak egiten ari den ikaslearen jarraipenaz eta laguntzaz arduratuko den irakaslea eta ikertzailea da, ZTF-FCTko Ingeniaritza Kimikoko Saileko kidea. Ikasle bakoitzari egokituko zaio bere tutorea. Tutorea izendatzeko, 22. artikuluan deskribatutako prozedurari jarraituko zaio.

b) **Begiralea**, berriz, curriculumeko kanpo praktika akademikoak gauzatuko diren erakunde laguntzaileko kidea da, unibertsitatearekin bat eginik prestakuntza jarduerak antolatzeko ardura duena.

c) **Praktika Programaren Arduraduna** (aurrerantzean, PPA), bestalde, kanpo praktika akademikoen programaren antolakuntzaren, koordinazioaren eta kudeaketaren ardura duen ZTF-FCTko pertsona da.

d) **Erakunde laguntzailea**, azkenik, UPV/EHUrekin curriculumeko kanpo praktika akademikoak gauzatzeko akordiora iristeko gaitasuna duen enpresa edo erakundea da.

Araudi honen ondorioei begira, "erakunde laguntzailea" kontzeptuak bere baitan hartuko ditu, halaber, beharrezkoa den prozedura bete eta gero, ikasleei curriculumeko kanpo praktika akademikoak eskaintzeko onartuko diren UPV/EHUren antolakuntza unitateak.

## **2. artikulua. Kanpo praktiken kontzeptua, izaera eta ezaugarriak.**

2.1. Ikasleek gauzatzen dituzten eta unibertsitateak gainbegiratzen dituen prestakuntza jarduerak dira kanpo praktika akademikoak, eta ikasleei prestakuntza akademikoan jaso dituzten ezagutzak garatzeko eta osatzeko bidean laguntzea da haien helburua, jarduera profesionalerako prestatzen, lan merkatuan egokitzen eta ekintzailetzarako gaitasuna sustatzen lagunduko dieten gaitasunak ahalik eta hobekien eskura ditzaten.

2.2. Unibertsitatean bertan edo erakunde laguntzaileen egoitzetan, hala nola nazio edo nazioarte mailako enpresa, instituzio eta erakunde publiko eta pribatueta, gauzatu ahal izango dira kanpo praktika akademikoak.

2.3. Kanpo praktika akademikoen prestakuntza izaera dela eta, haien gauzatze prozesuan inolaz ere ezingo dira ondorioztatu lan harreman bati dagozkion betebeharrak, eta haren edukian inolaz ere ez da onartuko lanpostu bati dagozkion betebeharrak ordezka litzakeen egitekorik.

2.4. Era berean, ikasketak bukatutakoan ikaslea erakunde laguntzaileko langile bilakatzen bada, praktiketan eginiko denbora ez da antzinasunari begira aintzat hartu ahal izango eta langile berria ez da horregatik proba epea igaro beharrik gabe gertatuko, non eta aplikatu beharreko lan hitzarmenean ez bada horrelakorik zehazten.

## **3. artikulua. Helburuak.**

Honako helburu hauek lortu nahi dira kanpo praktika akademikoen bitartez:

- a) Ikasleen prestakuntza osotua bultzatzea, haren ikaskuntza prozesu teorikoa eta praktikoa osatuta.
- b) Ikasleak jardun beharko duen errealitate profesionalaren arabeko lan metodologiaren ezagutza erraztea, jasotako ezagutzak alderatuta eta aplikatuta.
- c) Ikasleek gaitasun tekniko, metodologiko, pertsonal eta partaidetzakoak gara ditzaten bultzatzea.
- d) Ikasleek esperientzia praktikoa eskuratzea, lan merkatuan sartzen eta beren enplegarritasuna hobetzen lagunduko diena.
- e) Berrikuntzaren, sormenaren eta ekintzaitzaren balioak bultzatzea.

#### **4. artikulua. Praktiken iraupena eta ordutegiak.**

4.1. Praktiken iraupena honako hau izango da:

- a) Ingeniaritza Kimikoko Gradu curriculumeko kanpo praktikek 12 ECTSko iraupena izango dute.

4.2. Haietako bakoitzaren ezaugarrien eta erakunde laguntzailearen aukeren arabera zehaztuko dira praktiken ordutegiak. Nolanahi ere, ordutegi horiek bateragarriak izango dira ikasleak unibertsitatean gauzatu beharreko prestakuntza eta jarduera akademikoekin, eta baita haren ordezkaritza eta partaidetza betebeharrekin ere. Ikasketen bukaerak praktikena ere ekarriko du, ezinbestean. Behin ikasketak amaituta, aldezturik baimendutako praktikak baino ezingo dira gauzatu, eta ez dute iraungo sinatutako hitzarmenaren indarraldia baino gehiago; betiere, baldin eta ikasleak eskola aseguru, CUM LAUDE poliza edo antzekoren bat badu.

#### **5. artikulua. Praktika Programaren Arduradunaren (PPA) funtzioak.**

Curriculumeko kanpo praktika akademikoen programaren antolakuntzan, koordinazioan eta kudeaketan, honako funtzio hauek bete beharko ditu, besteak beste, PPAk:

a. Hitzarmenen izapideak bultzatuko ditu, eta haien edukia erakunde laguntzailearekin hitzartuko du. Erabiliko den hitzarmena ez badator bat dagokion eranskinarekin, PPAk egiaztatu beharko du haren edukia honako araudi honen arabera dela.

b. Adostasuna adieraziko dio erakunde laguntzaileak hautatutako begiraleari. Adostasun horrekin batera, "venia docendi" aitortuko zaio. Araudi honen 12.3. artikuluan adierazitako prozeduraren arabera gauzatuko da "venia docendi" delakoa.

c. Araudi honen 18. artikuluan aintzat hartutako irizpideei jarraiki, erakunde laguntzaile jakin bat eskatu duten ikasleen zerrenda prestatuko du.

d. Erakunde laguntzailean egindako praktiken emaitzen berri jakinaraziko die Campuseko errektoreordetzetako zuzendariei, curriculumeko kanpo praktika akademikoen arduradunak diren heinean.

## **6. artikulua. Prestakuntza proiektua.**

6.1. Kanpo praktika akademiko bakoitzaren oinarrian dagoen prestakuntza proiektuak, hain zuzen, hezkuntza helburuak eta gauzatu beharreko jarduerak finkatu beharko ditu. Ikasleek berenganatu behar dituzten oinarrizko gaitasunak, orokorrak nahiz bereziak, kontuan hartuta zehaztuko dira helburuak. Era berean, praktikaren edukiak definitzeko, eduki horiek egindako ikasketetan eskuratu beharreko gaitasunekin lotura zuzena dutela ziurtatu beharko da. I. Eranskinean (eranskinak, hain zuzen, UPV/EHUko Kanpo praktika Akademikoak arautzeko araudiarekin bat zenbakitu dira, 2012/4968 EHAA (1/47), zehazki, prestakuntza proiektuaren eredu bat dago jasota.

6.2. Nolanahi ere, barnean hartzea, aukera berdintasuna, bereizkeriarik eza eta irisgarritasun unibertsala izango dira prestakuntza proiektuaren oinarriak.

6.3. Dagokion ikasketa planean ezarritakoa abiapuntu hartuta, tutorea izango da kanpo praktika akademikoen prestakuntza proiektua egitearen erantzulea. Era berean, erakunde laguntzaileko begiraleak hala proposatuta, praktika behar bezala gauzatzeko ezinbestekoak diren egokitzapenak egin beharko ditu.

## **7. artikulua. Hezkuntza Lankidetzarako Hitzarmenak.**

7.1. Kanpo praktika akademikoak gauzatu ahal izateko, Hezkuntza Lankidetzarako Hitzarmenak sinatuko ditu Ikastegiak araudi honen 2.2. artikuluan aurreikusten diren erakunde laguntzaileekin, eta bereziki sustatuko du erakunde horietarako irisgarritasuna, ikasle ezinduek ere praktikak egin ahal izan ditzaten. Xede horri begira, behar diren giza baliabide eta baliabide material eta teknologiko guztiak bideratuko ditu aukera berdintasuna berma dadin.

7.2. Hitzarmenetan zehaztuko da ikaslearen, erakunde laguntzailearen eta unibertsitatearen arteko harremanak arautuko dituen esparrua. Honako araudi honen II. eranskinean dago jasota, hain zuzen, sinatu beharreko hitzarmen eredia.

7.3. Praktikak egingo dituzten ikasleak jasoko dituzten unibertsitateko antolakuntza unitateen kasuan, guztiz beteko da praktiken gaineko araudi honen 19. artikulua xedatutakoa. VII. eta VIII. eranskinetan daude jasota unibertsitateak eta antolakuntza unitateek sinatu beharreko ereduak.

## **8. artikulua. Praktiken hartzaileak eta haietan esku hartu ahal izateko betekizunak.**

8.1. Ingeniaritza Kimikoko Graduan, curriculumeko kanpo praktikak egin ahal izango dituzte honako hauek:

- a) **Izena ematean**, gradua amaitzeko 108 ECTS edo gutxiago falta zaizkien ikasleek.
- b) **Matrikulatzean**, gradua amaitzeko 85,5 ECTS edo gutxiago falta zaizkien ikasleek, GRALari dagozkion kredituak aintzat hartu gabe. Praktikak ikasturtearen bigarren lauhilekoan egingo dira, baldin eta Ingeniaritza Kimikoko Graduko Ikasketa Batzordeak oniritzia ematen badu.

c) Ikasleek praktikaren bat adostuta badute, praktikak, salbuespen gisa, udan edo lehen lauhilekoan egin ahal izango dira, baldin eta Ingeniaritza Kimikoko Gradu Ikasketa Batzordeak oniritzia ematen badu.

c) Praktikak gauzatuko diren enpresa, instituzio edo erakunde publiko edo pribatuarekin, edo unibertsitatearekin berarekin, inolako kontratu loturarik ez dutenek, Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko errektoreordeak zehaztuko dituen organoek horretarako baimena berariaz ematen duten kasuetan izan ezik.

## **9. artikulua. Praktiketari diren ikasleen eskubideak eta betebeharrak.**

9.1. Kanpo praktika akademikoak egiten ari diren bitartean, ikasleek honako eskubide hauek izango dituzte:

a) Praktikek irauten duten bitartean, unibertsitateko irakasle baten edo praktika bideratzen ari den enpresa, instituzio edo erakundean jardunean ari den profesional baten tutoretzarako eskubidea.

b) Ebaluaziorako eskubidea, unibertsitateak zehazturiko irizpideen arabera.

c) Praktikei buruzko txostena jasotzeko eskubidea. Praktikak eskaini dituen erakunde laguntzaileak emango du, eta berariaz zehaztuko dira hartan gauzatutako jarduera, haren iraupena eta, hala behar badu, errendimendua. Txostena araudi honen IV. eranskinaren araberrako ereduari jarraiki egingo da.

d) Hala zehaztu den kasuetan, erakunde laguntzaileak, ikasketetarako laguntza gisa, finkatutako ekarpen ekonomikoa jasotzeko eskubidea.

e) Jabetza intelektual eta industrialerako eskubidea, arloan arloko legediak arautzen dituen terminoetan, ikasleek eskubide horren zesio edo transmisiorako dokumentua sinatu duten kasuetan izan ezik. XII. eranskinean, hain zuzen, jabetza industrial eta intelektualerako eskubideak uzteko eta transmititzeko eredu orientatzailea dago jasota.

f) Segurtasun eta lan arriskuen prebentziorako araudiaren gaineko informazioa jasotzeko eskubidea, erakunde laguntzaileak eman beharko duena.

g) Bere jarduera akademikoa, prestakuntza lana eta ordezkaritza nahiz partaidetza betebeharrak betetzeko eskubidea, aldez aurretik erakunde laguntzaileari jakinarazita.

h) Ikasle ezinduen kasuetan, praktikak besteen baldintza berberetan egiteko eta tutoretza, informazioa eta ebaluazioa jasotzeko eskubidea. Beharrezkoak diren baliabideak jarriko dira ikasle ezinduen esku, eskubide hori bermatzearen.

i) Ikasle ezinduen kasuetan, praktiken garapena ezintasunaren ondorioz eratorritako edo harekin lotutako jarduera eta egoera pertsonaletara egokitzeko eskubidea.

j) Indarrean dauden araudietan eta/edo unibertsitateak erakunde laguntzailearekin Hezkuntza Lankidetzarako sinatutako hitzarmenetan aurreikusi diren beste eskubide guztiak.

9.2. Era berean, honako betebeharrak hauek izango dituzte ikasleek, kanpo praktika akademikoak egin bitartean:

a) Ikasleak izena ematean adierazitako aldiaren esleitutako enpresa praktikari uko egiten badiot behar bezala justifikatutako arrazoirik gabe, beste praktika bat esleituko zaio ikasle horri, aldi horretan izena emandako gainerako ikasleen esleipena amaitu ondoren.

b) Unibertsitatearen kanpo praktikei buruz indarrean dagoen arautegia betetzea.

c) Praktiken prestakuntza proiektua ezagutzea eta betetzea, kontuan izanik erakunde laguntzaileak izendatu duen begiralearen jarraibideak, unibertsitateko tutorearen gainbegiratupean.

d) Praktikak egiten dituzten bitartean, ZTF-FCTko tutorearekin harremanetan egon beharko dute, eta haietan sor litekeen zehazki gorabeheraren berri eman beharko diote. Bide beretik, eskatutako zehazkien dokumentuak, txostenak eta amaierako memoria aurkeztu beharko dituzte.



e) Lanean hastea erakunde laguntzailean aurrez adostutako egunean, hezkuntza proiektuan aurreikusitako ordutegia betetzea, eta erakunde horren funtzionamendu, segurtasun eta lan arriskuen prebentzio arauak errespetatzea.

f) Prestakuntza proiektua garatzea eta egoki betetzea erakunde laguntzailearekin hitzartutako jarduerak, proiektuan ezarritako lan ildoen arabera.

g) Araudi honen 14. artikuluan aipatzen diren praktiken amaierako txostena eta tarteko txostena egitea.

h) Isilpean gordetzea erakunde laguntzaileari buruzko informazioa eta haren jardueren gaineko lanbide sekretua, bai praktikak egiten ari den bitartean, bai praktikak amaitu ondoren.

Une oro, erakunde laguntzailearen politikari begirako errespetuzko jarrera erakustea, partaide diren unibertsitatearen izen ona zainduta.

i) Indarrean dauden araudietan eta/edo unibertsitateak erakunde laguntzailearekin hezkuntza lankidetzarako sinatutako hitzarmenetan aurreikusi diren beste betebeharrak guztiak.

9.3. Aurreko atalean aurreikusitako betebeharrak bete ezean, praktika bertan behera utzi ahal izango da, bukatu aurretik. Horretarako, ZTF-FCTk edo erakunde laguntzaileak arau-hauste horren berri jakinarazi beharko dio beste aldeari, eta aldean artean sinatutako lankidetzaren hitzarmenean aurreikusi bezala ebatzi beharko da auzia.

9.4. Betebeharrak betetzen ez badituzte edo praktikak bertan behera uzten badituzte, zigortu eta praktika berrietarako baimena esleitzerakoan lehentasunerako aukerarik gabe gertatuko dira ikasleak.

## **10. artikulua. Ikasleen gainbegiratzea UPV/EHUn eta erakunde laguntzailean.**

10.1. Kanpo praktikak egiteko, ikasleak ZTF-FCTko tutorea eta erakunde laguntzaileko begiralea izango ditu ondoan.

10.2. Kanpo praktikak ikaslearen ekimenez egin behar badira, ikasleak berak aukeratu ahal izango du tutorea ZTF-FCTko Ingeniaritza Kimikoko Saileko irakasleen artean, eta halaxe adierazi beharko du izena emateko eskaeran. Praktikak ez badira egiten ikaslearen ekimenez, ordea, Ingeniaritza Kimikoko Gradu Ikasketa Batzordeak esleituko dio tutore bat.

10.3. Egiteko horri begira beharrezkoak diren informazioa eta prestakuntza emango dizkie Unibertsitateak ikasle ezinduen tutoreei.

10.4. Erakunde laguntzaileak izendatuko duen begiralea erakunde horri berorri lotutako pertsona bat izango da eta, eskarmentu profesionalaz gainera, tutoretza modu eraginkorrean bideratzeko behar diren ezagutzen jabe izan beharko du. Begiralea eta tutoretza lanak beteko dituen ZTF-FCTko pertsona ez dira bat eta bera izango.

## **11. artikulua. Unibertsitateko tutorearen eskubideak eta betebeharrak.**

11.1. Honako eskubide hauek izango ditu ZTF-FCTko tutoreak:

a) Bere jarduera akademikoaren ezagutza eraginkorrerako eskubidea, unibertsitateak, dagokion unibertsitate araudian eta Lehen Xedapen Iragankorrean aurreikusirikoari jarraiki, xedatuko dituen baldintzetan.

b) Kanpo praktikak eta prestakuntza proiektua arautzen dituen araudia eta tutoretzapean eduki beharreko ikaslearen egonaldiaren baldintzak ezagutzeko eskubidea.

c) Erakundearen sartzeko eskubidea, bere eginkizunak bete ahal izateko.

11.2. Era berean, honako betebeharrak izango ditu:

a) Prestakuntza proiektua gorabeherarik gabe gauza dadin zaindu beharko du, eta praktiketako ordutegia eta ikaslearen betebeharrak akademikoak, prestakuntza lana eta ordezkartzeko nahiz partaidetzako betebeharrak bateragarriak izan daitezen bermatu.

- b) Praktiken jarraipen eraginkorra bideratu beharko du. Horretarako, erakunde laguntzailearen begiralearekin koordinatuko da, eta hala behar izanez gero, jarraipen txostenak aztertuko ditu.
- c) Prestakuntza proiektuan gerta litezkeen aldaketak baimendu beharko ditu.
- d) Tutoretzapeko ikaslearen praktiken ebaluazio prozesua gauzatu beharko du, Araudi honen 16. artikulua xedatutakoaren arabera.
- e) Tutore lanaren bidez lortutako edo ezagututako zeinahi informazio isilpean gorde beharko du.
- f) Unibertsitateko PPARI sor litekeen zeinahi gorabeherari buruzko informazioa eman beharko dio.
- g) Ikasle ezinduek praktikak aukera berdintasunean, bereizkeriarik jasan gabe eta irisgarritasun unibertsala xedatzen duen printzipioaren arabera egiteko, laguntzarako behar dituzten baliabideak egoki bideratu direla gainbegiratu beharko du eta, hala behar bada, halaxe egin dadila bermatu beharko du.

## **12. artikulua. Erakunde laguntzaileko begiralearen eskubideak eta betebeharrak.**

12.1. Honako eskubide hauek izango ditu erakunde laguntzaileko begiraleak:

- a) Bere laguntzaile jarduera aitortzeko eskubidea, artikulua honen 3. atalean jaso diren baldintzen arabera.
- b) Kanpo praktikak arautzen dituen araudia, prestakuntza proiektua eta berorren garapenaren baldintzak ezagutzeko eskubidea.
- c) Unibertsitatean sarrera izateko eskubidea, bere eginkizunak betetzeko behar dituen informazioa eta babesa eskuratzeko.
- d) Begiraleek beren etengabeko prestakuntzari lagun diezaioketen unibertsitateko instalazioak eta zerbitzuak (liburutegiak, mintegiak, eta abar) erabiltzeko eskubidea izango dute.

e) Unibertsitateak aintzat hartu ahal izango dituen beste kontsiderazio berezi guztiak.

12.2. Era berean, honako betebeharrak izango ditu:

a) Ikasleari harrera egin eta garatu beharreko jarduerak prestakuntza proiektuan zehaztutakoaren arabera antolatu beharko du.

b) Ikaslearen jarduerak gainbegiratu, praktikaren garapena orientatu eta kontrolatu beharko ditu, elkarrekiko errespetuan eta ikaskuntzarekiko konpromisoan oinarritutako harremanean.

c) Ikasleari erakundearen antolakuntzaren eta funtzionamenduaren berri eman beharko dio, eta baita intereseko araudia ezagutarazi ere; batez ere, segurtasunaren eta lan arriskuen arlokoa.

d) Hezkuntza lankidetzarako hitzarmenean zehaztutako jardueren garapena unibertsitateko tutorearekin koordinatu beharko du, praktikaren garapen egokiari begira prestakuntza proiektuan beharrezkotzat jo litezkeen aldaketak aintzat hartuta, eta bitarte horretan gerta litezkeen gorabeherak jakinarazi eta soluziobidean jarri beharko ditu. Haren ardurapeko egitekoa izango da, halaber, azterketak egiteko baimenen kontrola egitea.

e) Tarteko eta amaierako txostena, Araudi honen 14. artikulua aipagai duena, prestatu beharko du.

f) Ikasleei praktikak egin ahal izateko behar duten prestakuntza osagarria eman beharko die.

g) Ikasleei praktikak egin ahal izateko behar dituzten bitarteko materialak eman beharko dizkie.

h) Ikasleei erraztasunak eta bultzada eman beharko dizkie, berritzaileak eta ekintzaileak izan daitezen eta hobetzeko proposamenak egin ditzaten.

i) Unibertsitateko tutoreari erakunderako sarrera zabaltzeko beharko dio, bere eginkizunaren araberrako helburuak bete ahal izan ditzan.

j) Begirale lanaren bidez ikasleari buruzko informazioa eskuratzen badu, informazio hori isilpean gorde beharko du.

k) Erakundean ari den bitartean, ikasleari beharrezko laguntza eman beharko dio, eginkizun dituen jardueretan suerta litezkeen lan izaerako arazoekonponbideari begira.

l) Guztiz bermatuko du bere instalazio eta baliabideen erabilera, praktiken garapenari begira, eta berak zehaztuko du, halaber, hartu ahal izango dituen ikasleen kopurua, bere eskura dauden baliabideen eta lortu nahi diren helburuen arabera.

12.3. Hamargarren eranskinak dioenari jarraiki, UPV/EHUK "venia docendi" aitortuko die, lankidetzarako hitzarmenean arauturikoaren ondorioei begira, erakunde laguntzaileko begiraleei, Campuseko errektoreordeak, Unibertsitate Ikastegiak eta Campuseko praktika akademikoen zuzendari arduradunak hala eskatuta, xede horretan egingo dituen izendapenen bitartez.

### **13. artikulua. Erakunde laguntzaileko begiralearen tarteko eta amaierako txostenak.**

13.1. Erakunde laguntzaileko begiraleak amaierako txostena prestatu eta igorriko die ZTF-FCTko tutoreari eta ikasleari. Txosten hori praktikak bukatutakoan idatziko du, eta IV. eranskineko erudian aintzat hartutako puntuak bilduko ditu.

13.2. Hitzarmenean hala finkatuz gero, praktiken erdialdea igaro ondoren, tarteko jarraipen txosten bat egin ahal izango da.

### **14. artikulua. Ikaslearen praktiken tarteko jarraipen txostena eta amaierako memoria.**

14.1. Ikasleak amaierako memoria prestatu eta igorriko dio ZTF-FCTko tutoreari. Memoria hori praktikak bukatutakoan idatziko du, eta V. eranskineko erudian aintzat hartutako puntuak bilduko ditu.

14.2. Ikasleak praktiken tarteko jarraipen txosten bat prestatu beharko du, praktika epearen erdia igarotakoan, tutoreak hala egiteko eskatzen badio. Prestakuntza

proiektuaren garapenaren balorazioa egingo du ikasleak txosten horretan, aipatutako Eranskinean adierazitako moduan.

## **15. artikulua. Praktiken ebaluazioa eta egiaztapena.**

15.1. ZTF-FCTko tutoreak, bestalde, ikasleak gauzatutako praktikak ebaluatuko ditu, begiralearen txostenean eta ikaslearen amaierako txosten eta memorian oinarrituta. Horretarako, amaierako balioztatze txostena beteko du, VI. eranskinean aintzat hartutako puntuak jasota. Azken batean, horixe izango da praktikak egiaztatze dokumentua.

15.2. Curriculumeko kanpo praktiken ebaluazioa bigarren lauhilekoaren ohiko deialdian egingo da, edo, hala behar bada, ezohikoan. Ikasleak lehen lauhilekoaren ohiko deialdian kalifikatzea nahi badu, deialdia aurreratzeko eskaera egin beharko du Fakultateko Batzarrak horretarako onartuko dituen datetan.

## **16. artikulua. Istripuen aurkako eta erantzukizun zibileko aseguruak.**

16.1. UPV/EHUK erantzukizun zibileko aseguru poliza bat hitzartua du, ikasleek praktikak egitean eragin ditzaketen kalteak estaltzeko.

16.2. Erakundeko begiraleak praktiken jarduera programan zehaztu gabeko agindu edo jarraibideren bat ematen badu, eta ondorioz kalteak gertatzen badira, haien erantzukizuna inola ere ez da unibertsitatearena izango, ez eta praktiketan ari den ikaslearena ere.

16.3. Ikasketa ofizialetan, ikaslea 28 urtez gaindikoa bada, ezinbestekoa izango da ikasle orok izatea eskola aseguru osatuko duen bestelako asegururen bat. Aseguru osagarri hori, hain zuzen, UPV/EHUK hitzartutako «CUM LAUDE» istripu poliza kolektiboa izan daiteke, edo beste erakunde batek eskainitako beste asegururen bat, baldin eta, gutxienez, UPV/EHUREN bidez eskaintzen diren kontzeptuak («CUM LAUDE») aintzat hartzen baditu. Curriculumeko kanpo praktikei dagokienez, egokia irudituz gero, modu osagarrian kontratatu ahal izango da aseguru hori, aipatutako adina bete aurretik.

## **17. artikulua. Betebehar fiskalak ikasketetarako burtsan edo laguntzan.**

Kanpo praktikak gauzatzeko ikasketetarako burtsa edo laguntza ordaindu behar bazaio ikasleari, indarrean dagoen legedian xedatutako betebeharrak fiskalak bete beharko ditu erakundeak, hala nola Gizarte Segurantzaren alta ematea eta PFEZ atxikipena aplikatzea.

### **18. artikulua. Kanpo praktiken eskaintza, zabalkundea eta esleipena.**

18.1. Martxoko lehenengo astean, ikastegiak epe bat irekiko du, ikasleek Ingeniaritza Kimikoko Gradu kanpo praktiketarako izena eman dezaten. Zortzigarren artikuluan, *a* edo *b* ataletan, zehaztutako baldintzak betetzen dituzten ikasleek *izena emateko inprimakia* entregatuko dute ikastegiko idazkaritzan. Izena ematean, ikasleek hitzartuta eduki dezakete, edo ez, praktikaren bat; eta halaxe adierazi beharko dute izena emateko dokumentuan.

18.2. Beren kabuz praktikaren bat hitzartuta daukaten ikasleek GAUREn bidez txertatu beharko dute informazio hori (ikusirik enpresetako praktiketarako GAUREn eskuliburua), iraileko lehenengo bi asteetan.

18.3. Azaroko lehenengo astean, kanpo praktikak egiteko baldintza guztiak betetzen dituzten eta matrikula egin duten ikasleek gehienez hiru praktika aukeratu ahal izango dituzte, lehenetsi beharko dituztenak. GAUREn bitartez egin beharko dute praktika aukeraketa hori (ikusirik enpresetako praktiketarako GAUREn eskuliburua).

18.4. Ikasle batek baino gehiagok praktika berbera aukeratzeko badute, ikasketa espedientearen arabera egingo da esleipena. Enpresak hala eskatzen badu, izena emandako ikasleen CVak emango zaizkie, ikasleek horretarako baimena emanaz gero. Enpresak eska dezake ere aurrez aurreko elkarrizketa bat egitea. Irizpide horiek aintzat har daitezke ere praktika esleitzean.

18.5. Azaroko bigarrenengo astean, kanpo praktikak egiteko baldintza guztiak bete, eta matrikulatu diren ikasleei praktikak esleituko zaizkie. Ingeniaritza Kimikoko Gradu Ikasketa Batzordeak esleituko ditu praktikak.



18.6 Nolanahi ere, praktikak hautatzerakoan eta esleitzerakoan, lehentasuna izango dute ikasle ezinduek, irisgarritasun unibertsalerako neurri guztiak egiaztatzen dituzten enpresetara joateko aukera izan dezaten. Irisgarritasunerako neurri horien artean ditugu, besteak beste, garraioari, lekualdatzei eta sarbideei lotutakoak.

18.7. PPAk prestatuko ditu kanpo praktika akademikoak egin nahi dituzten ikasle hautagaien zerrendak, aurreko atalean adierazi den prozedurari jarraiki. Behin betiko zerrendak, praktiken esleipen eta guzti, abenduaren bigarren astean prestatuko dira.

18.8. Praktiken antolakuntzan eta garapenean bereziki hartuko da kontuan ikasleek praktika horiek egiterakoan ahalegin ekonomiko txikiena egin behar izatea.

#### **19. artikulua. Praktikak unibertsitateko antolakuntza unitate batean.**

Araudi honen ondorioei begira, UPV/EHUren Estatutueto 10. eta 93. artikuluetan aurreikusitako edozein unibertsitate egitura edo organo izan daiteke ikasleek kanpo praktika akademikoak egin ahal izango dituzten erakunde laguntzailea, honako berezitasun hauek gogoan hartuta:

a) Kanpo praktika akademikoetarako programak gauzatzeko aukera eskaintzen duen antolakuntza unitatea UPV/EHUren "zerbitzua" bada, guztiz kontuan hartu beharko da zerbitzu horrek A edo B taldeetako funtzionarioak edo administrazioko I. edo II. taldeetako langileak dituela eta aukeraturiko begiraleak talde horietako lanposturen batean ari behar duela eta horretarako proposamena espresuki onartu beharra daukala.

b) Dagokion Campuseko Errektoreordetzak onartu behar du Antolakuntza Unitatearen Arduradunak kanpo praktika akademikoetarako programan parte hartzeko bultzatutako ekimena, praktika Campus bakar batean gauzatu behar bada. Hala ez bada, Berrikuntza Graduako errektoreordeak onartu beharko du, VII. eranskineko ereduari jarraiki.

c) Sinatu beharreko dokumentua VIII. eranskin gisa ageri da, dagozkien egokitzapenekin batera; eta Antolakuntza Unitatearen arduradunak sinatuko du, beharrezkoak diren bestelako sinadurei kalterik eragin gabe.

d) Hala behar badu, VII. eranskinean zehaztuko da praktikaren ordainetan ikasleei ikasketetarako emango zaien burtsa edo laguntza. Ordainketa bakar batean egingo da haren abonua, edo bitan, praktika luzatuko den epea sei hilabetetik gorakoa bada.

e) Ekimena bideratuko duen antolakuntza unitateak kreditu aski eduki beharko du bere aurrekontuan, ikasketetarako burtsa eta laguntzak eta unitateko praktika akademikoei begira onartu den programan ariko den ikasle bakoitzak kontratatu beharko duen CUM LAUDE aseguru polizaren kuota abonatu ahal izateko.

## **20. artikulua. Hitzarmenen izapideak eta sinadura.**

20.1. Jarduerak unibertsitatetik kanpo gauzatu behar direnean, dagozkien hitzarmenen izapideak gauzatu eta sinatu beharko dituzte Ikastegiek. Haietan jasoko dira, hain zuzen, nola erakunde laguntzailearen hala Ikastegiaren betebeharrak eta eskubideak. Hitzarmen horiek, gutxienez, araudi honen II. eranskinean zehazten den hitzarmeneko klausulak jaso beharko dituzte.

20.2. Praktikak atzerriko enpresa edo erakundeetan gauzatu behar direnean, Nazioarteko Hedakuntzako Errektoreordetzari jakinaraziko zaio. Sinatu ondoren, hurrengo atalean adierazten denaren arabera, hitzarmenaren kopia bat igorriko zaio Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko Errektoreordetzari eta beste bat Idazkaritza Nagusiari.

20.3. PPAk hitzarmenen izapideak egiteari ekingo dio, eta haien edukia erakunde laguntzailearekin hitzartuko du. Hitzarmena ez badator bat eranskin horrekin, PPAk egiaztatu beharko du edukia honako araudi honi egokitzen zaiola, espresuki egindako erabaki bidez.

20.4. Dekanoak eta Campuseko errektoreordeak sinatu beharko dituzte hitzarmenak. Hitzarmenak campus bat baino gehiago aintzat hartzen baditu,

Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko Errektoreordetzari dagokio izapideak egitea, zerkusia duten Ikastegiek hala eskatuta, eta errektoreordeak, errektorearen ordean, eta zerkusia duten ikastegietako dekanoeak edo zuzendariak sinatuko dute.

#### **Artikulu. 21. Tutoreak izendatzea**

Tutoreak unibertsitateko irakaslea izan beharko du, eta praktikaren irakaskuntza arloari lotutakoa. Haren izendapena ikastegiak ezarritako prozeduraren arabera egingo da.

**22. artikulua. Curriculumekoak ez diren kanpo praktikak curriculumeko praktika gisa baliozkotzea.**

Curriculumekoak ez diren kanpo praktikak gauzatu dituzten Ingeniaritza Kimikoko Graduako ikasleek curriculumeko praktikatzat jo ahal izango dituzte, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badira:

- i) Curriculumekoa ez den kanpo praktika, gutxienez, 12 ECTSkoa izatea.
- ii) Ikasleak curriculumekoak ez diren kanpo praktika egin zuenean, Ingeniaritza Kimikoko Gradua amaitzeko 85,5 ECTS edo gutxiago izatea, GRALari dagozkion kredituak aintzat hartu gabe.

**AZKEN XEDAPENA**

Araudi hau Ikastegiko Batzarrak onartu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.